

## **ZESTOA / Erabilitako liburuak bilduko ditu Wadnak**

**Wadnak Bigarren eskuko liburuen azokan biltzenduten dirua sahararrei laguntzeko izango da**

N. Exposito

Sahararen aldeko Wadna taldeak, Saharar herriari diruz laguntzeko bigarren eskuko liburuen azoka bat antolatu nahi du, eta horretarako herritarren laguntza beharko du.

Azoka hau antolatzeke, liburuak bilduko dituzte Zestoan hilaren 30ean. Wadnakoak, udaletxe azpian izango dira liburuak biltzen, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Wadnakoek adierazi dutenez, mota guztietako liburuak bilduko dituzte: komikiak, eleberriak eta eskola liburuak.

Liburuak hilaren 30ean eraman ezin dituztenek, materiala liburutegira eramteko aukera dute, bertan ere bilduko baitituzte.

### **Azpeitian ere azoka**

Eskualdeko hainbat herrietan egin diren bigarren eskuko azokek izandako arrakasta ikusirik, Wadnakoek Zestoan ere antolatzea erabaki dute eta uztailaren 14an izango da.

Bestalde, uztailaren 21ean, Azpeitian Saharar Eguna izango da eta hainbat ekitaldiren artean, bigarren eskuko liburuen azoka ere izango da.